

TEMPORADA

2019 - 2020

DENBORALDIA

mitusu

BIZKAIKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA

PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS Y JÓVENES DE BIZKAIA

MITUSU

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA
PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE CULTURA
Y DEPORTES

inaem

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GIDA DIDAKTIKOA Paperezko ametsak



MONS dansa konpainia



MONS dansa konpainia (lehen, Nats Nus-en haurrentzako atala) 1998. urtean sortu zen Claudia Moresoren zuzendaritza artistikoaren pean, dantza txikiengana hurbiltzeko asmoarekin eta hizkuntza koreografikoa komunikazio-, espresio-, ikaskuntza- eta dibertimendu-modua bihurtzeko txiki eta handien artean, gizartea kulturaren mundura eta, bereziki, dantzaren mundura hurbildu nahi badugu, oinarritik hezi behar dugularen uste osoarekin.

Urte hauetan zehar, haurrei eta familiei zuzendutako 12 ikuskizun sortu ditu, herrialde osoan zehar eta atzerrian antzestu direnak, eta hainbat sari jaso ditu, Kataluniako panoramaren barruan erreferentziazko konpainia bihurtuz.

Esperientzia guzti honek hezkuntza-lan aberasgarri bati emango dio bidea, non konpainiak ikuskizunen produkzioa hezkuntzaren mundura zuzendutako proiektu pedagogikoen garapenarekin konbinatzen dituen, hala nola “Dansa a les écoles” (Dansacat 2010 saria) edo “Danza en el Bachillerato” Batxilergo artistikoko ikasleekin.

Familia-tailerrak eta irakasleentzako prestakuntza ere eskaintzen ditu.

Paperezko ametsak

SINOPSISIA

Paper-zati bat milaka gauza ezberdin bihur daiteke

Lore bat, txori bat, arrain bat edo soinu bat ere

Dantzatutako istorio txikiak azaltzera laguntzen dizkiguten gauzak

Ametsen zati ahaztuak

Paperezko ametsak dira... Esnatu egiten ditugu?

Paperezko ametsak

FITXA ARTISTIKOA

Idea eta zuzendaritza	Claudia Moreso
Sorkuntza eta interpretazioa	Sarah Anglada, Sara Pons
Argiztapena	Roger Guinot
Musika	Tactequeté, Henry Mancini, Cabo Sant Roque, Martí Mira
Eszenografia eta atrezzo	Miquel Ruiz, Martí Doy
Jantziak	Flavia Onofre das Neves
Bideoa	Diego Delgado, Oscar Pérez
Bideoaren edizioa	Martí Mira
Produkzioa	Rosa Pino

Iraupena: 40 minutu

Gomendatutako adina: 1-5 urte artean.

Kataluniako Generalitat-aren Kultura eta Komunikabideen Sailaren eta Hezkuntza eta Kulturako Ministerioaren (INAEM) diru-laguntza duen konpainia

Konpainia La Caldera-ren sortzailea eta kidea da. TTP-ren (Teatre Tots Públics elkartea), Assitej-en (Haurtzaro eta gaztarorako antzerki elkartea) eta Te Veo-ren (Haur eta gazteentzako antzerkia) kide.

Dantza eta haurrak

Mugimendua gizaki guztietan dago presente. Jaio baino lehenagotik ere, eta bereziki haurtzaroan zehar, mundua hitzik gabeko hizkuntzen bidez esploratzen dugu. Hortaz, bizitzaren lehenengo etapa honetan dantzarekin modu oso naturalean konektatzen dugu, mugimenduaren bidezko espresioa hizkuntza oso hurbila delako. Hurrei, haien barneko zati hori modu intuitiboan erabiltzeak gozamen handia sentiarazten die, sistema sentorial oso bat esnatzen duena, hura denarekin eta inguratzen dion espazioarekin lotzen duena, modu ludiko eta atseginean. Hurrek inguratzen dituzten munduari buruzko informazioa haien gorputzarekin prozesatzen dute. Zenbait ikerketak mugimendu zehatzak burmuinaren bi hemisferioak aktibatzen dituztela erakusten dute, eta, hau geratzen denean, ikaskuntza errazagoa da. Horretaz gain, ekintza egiaztatua da eskolan errendimendu baxua duten haur asko gehienbat gorputzaren bidez hobeto ikasten duten ikasleak direla.

Mugimendu sortzaileak hurrek espresatzeko modua aurkitzea, mugimendugaitasunak garatzea, gorputz-kontzientzia hobetzea izatea, taldean lan egitea eta haien gaitasun eta berezitasunak aurkitzea ahalbidetzen du, eta esparru afektiboan, kognitiboan, fisikoan eta estetikoan garatzera ere laguntzen die. Pertsonak hobeto ikasten dugu zentzuak erabiltzen ditugunean; hortaz, mugimendu sortzailearen eta dantzaren irakaskuntza alderdi askorentzako onuragarria den baliabide pedagogikoa da.

Bisitatu antzokia



Haurrentzako, antzokira joatea dantza-ikuskizun bat ikustera, aurkikuntza handia izan daiteke.

Haien ikaskideekin esperientzia ludiko eta sentsitiboa partekatzea, toki berri batean egotearen sentsazioa bizitzea, non arreta jartzea eta isilik egotea eskatzen zaion, argi gutxi dagoen lekua, pertsona bat mugimenduaren bidez eta musika ezberdinen erritmoaren bidez nola espresatzen den ikusten. Horrek guztiak haien imajinazioa estimulatzeko du, eta haien pertzepzio-sistema zorroztera gonbidatzen ditu. Baina interesgarria da esperientzia honi aurrea hartzea aldez aurretik ikuskizunean hobeto parte har dezaten ahalbidetuko dieten zenbait kontzepturekin lan eginez. Modu horretan, jada esperimendatu duten proposamen baten aurrean aurkituko dira, eta eszenatokian gertatzen ari denarekin erlazionatuago eta inplikatuago sentituko dira. Asmo horrekin egin dugu txosten hau, irakasleei antzokia bisitatu baino lehenagorako zein geroagorako ideiak eta metodologiak eskaintzen dizkiena.


Dantzan egin nahi?



Ikasleekin landu ahal izateko ariketen proposamenen gida, ikuskizuna ikusi baino lehen edo ondoren. Proposatutako ariketak dantzaren munduarekin daude erlazionatuta, bai eta ikuskizunaren zenbait eszenekin ere. Argibide oso zehatzak ematea gomendatzen dugu, baina askatasuna utziz, ikasleek modu libre eta pertsonalean esperimenta ditzaten espontaneoki sortzen diren mugimenduekin. Horrela, haien sormen-potentziala aurkitzera, haien gorputzarekin konektatzera eta haien mugimendu-estiloa ezagutzera laguntzen diegu.

Zer da dantza?

Dantzaren munduari buruz hitz egingo dugu ikasleekin, guztiok zer pentsatzen duten azaldu ahal duten eztabaida bat eratuz: arte mota hau ezagutzen duten ala ez, noizbait dantza-ikusketan bat ikusi al duten, dantzan egitea gustuko badute... Existitzen diren dantza estilo ezberdinen inguruan ere hitz egin dezakegu, eta barne hartzen dituen lanbide ezberdinez ere, hala nola: dantzariak, koreografoa, argiztatzaila, jantziez arduratzen dena eta eszenografoa. Horretarako, irudiak, ipuinak edo objektuak erabili ditzakegu.



Prestatu dezagun gorputza!



Gure gorputzarekin lan egiten dugun bakoitzean garrantzitsua da beroketa on bat egitea, ez bakarrik minik ez hartzeko, gorputza “esnatzeko” eta guztiz konektatuta eta kontziente egoteko ere. Laguntzen gaituen erritmoa duen musikaren bat jar dezakegu, eta ikasleei gorputzeko atal guztietatik ibilbide bat egitea proposatzen diegu, burutik oinetara arte.

-Hau eskatuko diegu:

“Burua sentitzen dugu”, eta askatasun osoz mugitzen dugu, mugimenduaren posibilitate guztiak bilatuz. Horrela, sorbaldeetatik, bizkarrezurretik, besoetatik, eskuetatik, atzamarretatik, etab. pasatzen gara, atal bat ere ez atzean utziz. Gure gorputzeko atal bakoitza nola mugitzen den behatzen dugu. Artikulazioak, muskuluak, hezurak, etab. izendatzeko aprobeitza dezakegu.

Gorputz osoa errepasatu dugunean, guztia aldi berean mugi dezaten eskatu ahal dugu, eta zenbakiak jarriko ditugu mugimenduaren intentsitatea neurtzeko:

1. zenbakia, mugimendu oso txikiak, eta 10. zenbakia, mugimendu oso handiak. 1 eta 10 arteko zenbakiak esatera jolasten dugu.

0 zenbakiarekin izoztuta gelditzen gara!

Jolastuko al gara paperekin?

Zein gauza asma ditzakegu paper-zati batetik?

Paper-zati bat tolestuz, biratuz edo apurtuz hainbat forma sor ditzakegu: txori bat, panpina bat, lore bat, arrain bat... Zer iruditzen zaizu?

“Paperezko museo” bat sor dezakegu gure sorkuntzekin.

Eta, guzti hau, nola mugitzen da? Sortu ditugun forma guztiak mugimenduan jartzera jolastuko dugu.



Paperarekin jantzi nahi?

Paperezko zati handiekin esperimenta dezakegu, jantzeko arropak bihurtzeko moduak bilatuz: txapelak, gonak, soinekoak, kapak... eta milaka gauza gehiago sortu ahal ditugu!

Paperezko panpinak



Panpina bat izango bazina, nola mugituko zinateke? Mugimendu ondulatu, biribil eta suabeak izango lirateke? Edo mugimendu ebaki eta zuzenak?

Bikoteka jartzen gara eta gure ikaskidearen gorputza panpina batena dela imajinatzen dugu: mugitu dadin egiten dugu, posizio ezberdinetan kokatuz, besoa altxatzen diot, gero bizkarra tolesten diot, orain hanka bat altxatzen diot... ez jausteko oreka nahikorik izango al du? Azkenik, posizio zehatz batean uzten dugu, estatua bat izango balitz bezala, eta guztiek bukatu dutenean, gelan zehar ibilbide bat egin dezakegu panpina ezberdinak behatzeko. Ondoren, gure panpinari giltza eman diezaiokegu espazio guztian zehar dantzan egin dezan!

Ariketa errepikatzen dugu, paperak alderantzikatuz.

Ipuin bat dantzatu!



Ipuin baten irakurketatik, gure gorputzarekin eta mugimendurekin bakarrik, kontatzen diren ekintza guztiak antzeztera jolasten dugu, gu gauden gela ipuinaren paisaia eta espazio ezberdinak direla irudikatuz, horietan barrena mugitu ahalik.

Inprobisazioa

Paperak mugimenduaren bidez jolasteko eskaintzen dizkigun aukera ezberdinekin esperimentatu ondoren, apur bat haraino joatea proposatzen dizuegu.

Nola mugitzen dira elementu ezberdinak?

Lau elementuekin jolastuko gara: Ura, lurra, sua eta airea.

Begiak itxita horietako bakoitza nolakoa den irudikatuz has gaitzke.

Gero, bere mugimendua nola izan daitekeen deskribatzen dugu:

-Ura uhindua.

-Lurra trinko eta pisutsua.

-Sua txinpartatsua eta leherkorra.

-Airea arina eta jariakorra.

Horietako bakoitzari buruz hitz egiten goaz eta, ondoren, horien mugimendua antzezten saiatzen gara.

Adibidez, uraren kasuan:

Lurrean eserita.

Eskuak mugitzen hasten gara, ura garela imajinatuz; mugimendu suabeak egiten ditugu, espazioan zirkuluan eta kurbak marraztuz.

Mugimendua arina izan behar da, eta ezin da inoiz gelditu.

Apurka-apurka, mugimendua handituz goaz, eta besoak, ukondoak eta sorbaldak erabiltzen ditugu ere.

Mugitzeari utzi gabe, altxatzen hasten gara, eta mugimendua zabaltzen jarraitzen dugu. Orain, altxatuta, sorbalda, aldakak eta hankak erabil ditzakegu, beti gorputzarekin espazioan eta norabide guztietan zehar forma biribil eta uhinduak marrazten ditugula imajinatuz.

Lekutik mugitzen gara, espazio guztian zehar dantzatzuz, inoiz mugitzeari utzi gabe.

Erritmo eta intentsitateekin jolastu ahal dugu, adibidez, mugimendu oso lasai eta txikiak proposatuz edo mugimendu oso arin, indartsu eta handiak proposatuz.

Komenigarria da irudiak iradokitzen lan egitea, adibidez: laku lasai bat edo itsasoa ekaitza dagoen egun batean.

Mugimenduaren gehiengora heldu garenean, hura txikiagotzen goaz, ariketa guztia alderantziz eginez, berriz ere lurrean eserita, eskuekin mugimendu txikiak egiten, bukatu arte.

Modu mailakatu honen bidez, elementu guztiekin jolasten dugu.

Erabiltzeko musiken proposamena:

[-Peixinhos do Mar, Barbatuques-ena \(gorputz-perkusioa\)](#)

[-Andando Pela Africa, Barbatuques-ena](#)

[-Guitare Bambou, René Aubry-rena](#)

[-Dansons sous la pluie, René Aubry-rena](#)

[-Waltz, Balenescu Quartet-ena](#)

[-Kadoran, Yann Tiersen-ena](#)

[-Stars \(Bobby Mc Ferry-Yo yo Ma\)](#)